



Fitxa didaktikoa

Sextortsioa: kontuz Interneteko amodio-kontuekin!



Zure lagunak kontatu dizunez...

Gogoan duzu duela egun batzuk Instagramen jarraitzen hasi zitzaidan mutila?

Haren argazkiak ikusi ditut eta... izugarri gustatzen zait! Elkarren antzekoak gara gauza askotan, eta fisikoki... perfektua da!

Aste osoa daramagu modu pribatuan hitz egiten, eta mezuak gero eta gordinagoak dira...

Maite-jolasean pare bat argazki bidali diogu elkarri... eta orain bideodei bat egiteko eskatu dit! Zer egin dezaket?

Zer aholku eman diezaiokezu?
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke



Zure lagunak kontatu dizunez...

Duela aste batzuk neska bat ezagutu nuen Interneten... Oso gustukoa nuen

Ez ginen geratu, baina WhatsApeez oso maiz hitz egiten genuenez, harremana beste maila batera pasatu zen eta kamisetarik gabe agertzen zen argazki bat bidali zidan...

Une horretan ez nuen gehiegi pentsatu... eta bainugelan biluzik agertzen nintzen argazki bat bidali nion. Eta orain dena aldatu egin da...

Horrelako argazki gehiago bidaltzeko eskatzen dit etengabe... Esaten du, egiten ez badut, irudi hori mundu guztiari bidaliko diola! Zer egin dezaket?

Zer aholku eman diezaiokezu?
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke

is4k INTERNET
SEGURA
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta gure laguntza-ildoak hemen: www.is4k.es





Fitxa didaktikoa

Sextortsioa: kontuz Interneteko amodio-kontuekin!

ERABAKI-ZUHAITZAK IKASGELAN ERABILTZEKO ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

- Erabaki-zuhaitza inprima dezakezu (hobeto A3 tamainan edo handiagoan), eta ikasgelan ikusteko moduan jarri, ikasleentzat eskuragarri egon dadin.
- Erabili fitxa honetako elkarrizketak ikasleak egoeran jarri ahal izateko, horrelako arazoak aurkituz gero zer erabaki hartuko luketen hausnar dezaten.
- Anima itzazu erantzun bakoitza justifikatzera:
Zergatik hautatu duzu aukera hori?
Zer ondorio izango lituzke beste moduren batean jarduteak?

Osatu saioa ikasitakoa bereganatzeko beste jarduera batzuekin: ideia batzuk proposatzen dizkizugu!

- Sextingaren praktikari eta horren arriskuei buruzko eztabaida antolatzea: "*ba al dago gizarte-presiorik gazteek sextinga egin dezaten?*"
- Horma-irudi bat sortzea, taldeka, Interneten inork xantaia egin diezagun saihesteko aholkuak sormenez irudikatzeko.
- Interneten ikertzea sextortsioa zer den, eta beste ikastetxe batzuetako baliabideak bilatzea gai hori lantzeko.
- Interneteko egunkarietan bilatzea Interneten xantaia jasan duten gazteen kasu errealei buruzko albisteak.

Halaber, gure **baliabideak** eta **material didaktikoak** erabil ditzakezu jarduera zabaltzeko; hemen daukazu: www.is4k.es!

is4k INTERNET
SEGURA
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta gure laguntza-ildoak hemen: www.is4k.es

